

Bilakaera historikoa

2004 Mar 18

Pablo VI.ak, 1966ko abuztuaren 6an, Kontzilioan prelatutza pertsonalak sortzeko ekimena bete egin zuen, Ecclesiae sanctae “motu proprio”aren bidez. Agiri horren arabera, laikoak etorkizunean sortuko ziren prelatutza pertsonaletan kidetuta ahal izango ziren, sinesle laikoaren eta prelatutzaren arteko bitariko itun baten bidez.

Urte bete geroago, 1967ko abuztuaren 15ean, Pablo VI.ak

adierazi zuen, Regimini Ecclesiae
universae konstituzio apostolikoan,
prelatutza pertsonalak Gotzainen
Kongregazioen menpean egon eta
Aita Santuak sortuko zituela,
Gozainen Batzar interesatuen iritzia
entzunez gero.

1988ko Pastor Bonus konstituzioaren
80. artikulua berretsi egin zuen
Regimini Ecclesiae universae
izenekoan esandakoa.

.....

pdf | document generated
automatically from [https://opusdei.org/
eu-es/article/bilakaera-historikoa/](https://opusdei.org/eu-es/article/bilakaera-historikoa/) (2025
Api 14)